



Bruce Partingtonen planoen abentura

ARTHUR CONAN DOYLE



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ARTHUR CONAN DOYLE

Bruce Partingtonen planoen abentura

itzulpena:

Oier Landeta Etxebarria

zuzenketa:

Leire Urbieta Vázquez

maketazioa:

Garaine Hernández Huidobro

Azaroko hirugarren astean, 1895 urtean, laino hori trinko bat ezarri zen Londresen. Astelehenetik ostegunera zalantzan jartzen dut gure leihoetatik Baker Streeteko aurreko etxeen teilatua ikusteko aukerarik izan ote genuen. Lehenengo eguna erreferentzia-liburu esker ga gurutzatzen eman zuen Holmesek. Bigarrena eta hirugarrena pazientziaz igaro zituen azkenaldian zaletasun bihurtu zuen gai baten inguruan: Erdi Aroko musika. Baina laugarren egunean, gure gosaltzeko aulkiak atzerantz bultzatu ondoren, laino lodi eta koipetsuak gure aurretik jarraitzen zuela eta leihoetako kristaletan tanta oliotsutan kondentsatzen zela ikusi genuenean, nire kidearen natura kementsu eta egonezinak ezin izan zuen gehiago jasan bizitza motel hori. Etengabe ibili zen egongelan gora eta behera, baretutako energiaren sukarrak jota, azkazalak jaten, altzariak kolpatzen eta inaktibitatearen aurka amorratzen.

“Ezer interesgarririk egunkarian, Watson?” Esan zuen.

Banekien ezer interesgarririk esatean, Holmesek interes kriminala esan nahi zuela. Iraultzabaten berriak zeuden, guda posible batenak, eta gobernu aldaketa gertu batenak; baina horiek ez zuten nirea kidea interesatzen, ezin nuen ikusi krimen gisa erregistratutako ezer, arrunta ez zenik. Holmesek intziri egin zuen eta bere ibilaldi egonezinei ekin zien berriro.”

“Londreseko gaizkilea aspergarria da” esan zuen huts egin duen kirolari kexatiaren ahotsarekin. “Begira lehio honetatik kanpo, Watson. Ikusi nola irudiek forma hartzen duten, nola ikusten diren lauso, eta ondoren nola nahasten diren berriro hodei multzoarekin. Lapurra edo hiltzailea tigreak oihanean bezala ibili daitezke Londresen horrelako egun batean; ikusezin erasotu arte, eta gero biktimarentzat bakarrik agerian.

“Izan dira” esan nuen, “garrantzi gabeko hainbat lapur.”

Holmesek purrustada egin zuen mespretxuz.

Eszenatoki handi eta goibel hau hori baino zerbait duinagorako prestatuta dago” esan zuen. “Zorte handia du komunitate honek ni kriminala ez izatea.”

“Bai horixe, benetan!” esan nuen nik bihotz-bihotzez.

“Pentsa Brooks edo Woodhouse banintz, edo nire bizitza kentzeko arrazoi onak dituzten berrogeita hamar gizon horietako edozein; zenbat denbora iraungo nuke nire jazarpenaren aurrean? Deialdi bat, hitzordu faltsu bat, eta dena amaituko litzateke. Eskerrak herrialde latinoetan” erailketen herrialde horietan “ez duten laino egunik. Jainkoarren! Hemen dator zerbait, azkenean, gure monotonía hila apurtzeko.”

Zerbitzaria zen, telegrama batekin. Holmesek zirt-zart ireki eta barreari eman zion.

“Tira, tira! Zer dugu orain?” esan zuen. “Mycroft anaia dator hona.”

"Zergatik ez?", galdetu nuen.

"Zergatik ez? Herri bide baten erdian tranbia bat aurkitzea bezala da. Mycroft-ek bere errailak ditu eta horien gainean dabil. Pall Malleko logelak, Diogenes kluba, Whitehall; hori da bere zikloa. Behin, eta behin bakarrik, egon da hemen. Zein lurrikarek atera ote du bere bidetik?"

"Ez al du ezer azaltzen?"

Holmesek bere anaiaren telegrama eman zidan:

Cadogan West dela eta ikusi behar zaitut. Berehala nator. — Mycroft.

"Cadogan West? Izena ezaguna egiten zait", esan nuen.

"Niri ez dit ezer gogorarazten. Baina Mycroft honela modu erratikoan ateratzea! Planeta bat bere orbitatik ateratzea bezala da. Bide batez, badakizu zer den Mycroft?"

Gogoan nuen azalpen lausoren bat, Greziar itzultzailearen abentura garaikoa.

"Gobernu britainiarrean kargu txikiren bat zuela esan zenidan".

Holmesek barre-algaratxo bat egin zuen.

"Garai hartan ez zintudan hain ondo ezagutzen. Diskretua izan behar da estatuko kontu garaiez hitz egiten denean. Arrazoi duzu gobernu britainiarraren azpian dagoela pentsatzean. Baina zentzu batean arrazoi izango zenuke, baita ere, noizean behin bera dela gobernu britainiarra esango bazenu".

"Ene Holmes maitea!"

"Harrituko zintudala uste nuen. Mycroftek laurehun eta berrogeita hamar libra irabazten ditu urtean, menpekoa izaten jarraitzen du, ez du inolako anbizioirik, ez du ohore ez titulurik jasoko, baina herrialdeko gizonik ezinbestekoena izaten jarraitzen du".

"Baina, nola?"

"Bada, bere kargua paregabea da. Berak sortu du bere buruarentzat. Inoiz ez da horrelakorik izan, eta ez da berriro izango. Berak du bizirik dagoen edozein gizonen garun txukun eta ordenatuena, datuak biltzeko gaitasunik handienarekin. Nik krimenak detektatzeko erabili ditudan botere handi horiek berak negozio berezi honetarako erabili ditu. Sail bakoitzaren ondorioak berari pasatzen zaizkio, eta bera da truke-zentro nagusia, balantzea egiten duen klering-etxea. Gainerako gizon guztiak espezialistak dira, baina bere espezialitatea omniszientzia da. Pentsa dezagun ministro batek informazioa behar duela Itsas Armada, India, Kanada eta bimetalismoaren auzia ukitzen dituen puntu bati buruz; sail bakoitzetik bere aholkuak jaso litzake, baina Mycroftek bakarrik foka ditzake denak, eta momentuan esan

faktore bakoitzak nola eragingo lukeen bestean. Atribuzio gisa hasi ziren bera erabiltzen, erosotasunagatik; orain ezinbesteko bihurtu da. Bere garun handi horretan dena dago sailkatuta eta une batean eman daiteke. Behin eta berriz, bere hitzak erabaki du politika nazionala. Horretan bizi da. Ez du beste zertan pentsatzen, ez bada ariketa intelektual gisa, nire bisita jasotzen duenean eta nire arazo txikietako batean aholkua eskatzen diodanean. Baina Jupiter jaisten ari da gaur. Zer arraio esan nahi ote du? Nor da Cadogan West, eta zer da Mycroftentzat?"

"Badut!", oihu egin nuen, eta sofa gaineko paper-pila artean murgildu nintzen. "Bai, bai, hemen dago, zalantzarik gabe! Cadogan West astearte goizean metroan hilda aurkitu zuten gizon gaztea zen".

Holmes erne jarri zen, pipa ezpainetara bidean geldituz.

"Honek serioa izan behar du, Watson. Nire anaia bere ohiturak aldatzera behartu duen heriotza bat ezin da arrunta izan. Zer arraio du berak horrekin zerikusirik? Gogoratzen dudanez, kasua nahiko ezaugarri gabea zen. Gaztea, itxuraz, trenetik erori eta bere burua hil zuen. Ez zioten lapurretarik egin, eta ez zegoen indarkeria susmatzeko arrazoi berezirik. Ez al da hala?"

"Ikerketa bat egon da", esan nuen, "eta datu berri asko azaldu dira. Gertuagotik begiratuta, kasu bitxia dela esango nuke ziur aski".

"Nire anaiarengan izan duen eragina ikusita, apartekoa izan behar duela pentsatu behar dut". Bere besaulkian eroso jarri zen. "Tira, Watson, eman ditzagun datuak".

"Gizonaren izena Arthur Cadogan West zen. Hogeita zazpi urte zituen, ezkongabea zen, eta Woolwich Arsenaleko funtzionarioa".

"Gobernuaren enplegatua. Horra hor Mycroft anaiarekiko lotura!"

"Woolwich-etik bat-batean irten zen astelehen gauean. Violet Westbury bere emaztegaiak ikusi zuen azkenekoz; arratsaldeko 7:30ak aldera utzi zuen bat-batean laino artean. Ez zen liskarrik egon haien artean eta emakumeak ezin du haren ekintzarako arrazoirik eman. Haren berri izan zen hurrengo gauza bere gorpua aurkitu zutenean izan zen; Mason izeneko trenbide-konpontzaile batek aurkitu zuen, Londresko metro-sistemako Aldgate geltokitik kanpo".

"Noiz?"

"Gorpua astearte goizeko seietan aurkitu zuten. Trenbidearen ezker aldean zegoen, metaletatik urrun, ekialderantz goazela, geltokitik gertu, linea bera doan tuneletik ateratzen den puntu batean. Burua erabat txikituta zuen; erorketa batek sor zezakeen zauria, trenetik erorita. Gorpua modu horretara bakarrik iritsi zitekeen trenbidera. Inguruko edozein kaletatik ekarri izan balute, geltokiko hesiak igaro beharko lituzkeen, eta han beti dago txartel-biltzaile bat. Puntu hau erabat ziurra dela dirudi".

"Oso ondo. Kasua nahiko argia da. Gizona, hilik ala bizirik, trenetik erori zen edo bota egin zuten. Hori argi dut. Jarraitu".

"Gorpua aurkitu zen tokiko trenbideetatik igarotzen diren trenak mendebaldetik ekialdera doazenak dira; batzuk Metropolitan lineakoak eta beste batzuk Willesden eta inguruko lotuneetatik datozenak. Ziurtzat jo daiteke gizon gazte hau, heriotzarekin topo egin zuenean, norabide horretan bidaiatzen ari zela gaueko ordu berantiarren batean, baina ezinezkoa da esatea zein puntutan sartu zen trenean".

"Bere txartelak, noski, hori erakutsiko luke".

"Ez zegoen txartelik bere poltsikoetan".

"Txartelik ez! Ene, Watson, hau benetan bitxia da. Nire esperientziaren arabera, ezinezkoa da Metropolitan tren bateko nasara iristea txartela erakutsi gabe. Suposatzea da, beraz, gazteak bat zuela. Kendu egin zioten nondik zetorren ezkutatzeko? Posible da. Edo bagoian erori zitzaion? Hori ere posible da. Baina puntua interesgarria da oso. Ulertzen dut ez zegoela lapurreta zantzurik?"

"Itxuraz, ez. Hemen dago bere gauzen zerrenda. Diru-zorroan bi libera eta hamabost zentimo zituen. Gainera, Capital and Counties Bankeko Woolwich sukurtsaleko txeke-liburuxka bat zuen. Horren bidez identifikatu zuten. Woolwich Antzokirako besaulki-patioko bi sarrera ere bazituen, arratsalde horretarako bertarako. Eta baita paper teknikoaren fardel txiki bat ere".

Holmesek poztasun oihu bat egin zuen.

"Hantxe dugu azkenean, Watson! Britainiar gobernua — Woolwich. Arsenal — paper teknikoak — Mycroft anaia; katea osatuta dago. Baina hemen dator, oker ez banago, bere kabuz hitz egitera".

Une bat geroago, Mycroft Holmesen irudi altu eta sendoa sartu zen gelan. Gorputz handi eta mardulekoa, inertzia fisiko zakar baten itxura zuen, baina marko astun horren gainean kopeta handiko buru bat zegoen, hain maisua, hain erne bere altzairu-koloreko begi sakonekin, hain irmoa ezpainetan eta hain sotila bere adierazpenetan, non lehen begiratuan gorputz handi hori ahaztu eta adimen nagusiaz bakarrik gogoratzen baitziren.

Haren atzetik gure lagun zaharra zetorren, Lestrade, Scotland Yardekoa; argala eta kaskarra. Bien aurpegiko seriotasunak ikerketa garrantzitsu baten berri ematen zuen. Detektibeak hitzik gabe eman zigun eskua. Mycroft Holmes bere gainjantzia kentzeko borrokatu zen eta besaulki batean eseri zen.

"Afera gogaiakarra, Sherlock", esan zuen. "Asko gorrotatzen dut nire ohiturak aldatzea, baina botereek ez dute ukerik onartu. Siamgo egungo egoera ikusita, oso deserosoa da ni bulegotik kanpo egotea. Baina benetakoa krisia da. Inoiz ez dut ikusi Lehen Ministroa hain urduri.

Almirantegoari dagokionez... iraulitako erlategi bat bezala dabil burrunban. Irakurri duzu kasua?"

"Hantxe ari ginen. Zer ziren paper tekniko horiek?"

"Ah, horixe da kontua! Zorionez, ez da argitara atera. Prentsa amorratu egingo litzateke jakingo balu. Gazte dohatsu horrek poltsikoan zituen paperak Bruce-Partington itsaspekoaren planoak ziren."

Mycroft Holmesek garrantzi handia eman zion gaiari hitz egitean. Bere anaia eta biok zain geunden.

"Ziur aski entzungo zenuten horren berri? Denok entzun zutela uste nuen."

"Izena bakarrik."

"Haren garrantzia ezin da gutxietsi. Gobernuaren sekreturik zainduena izan da. Sinetsidazu: itsas gerra ezinezkoa bihurtzen da Bruce-Partington baten ekintza-erradioan. Duela bi urte, diru-kopuru handi bat bideratu zen aurrekontuetatik asmakizunaren monopolioa lortzeko. Sekretua gordetzeko ahalegin guztiak egin dira. Planoak, izugarri korapilatsuak direnak —denak ezinbestekoak multzoak funtziona dezan—, kutxa gotor dotore batean gordetzen dira, arsenalaren ondoan dagoen bulego konbentzitu batean. Inolaz ere ezin ziren planoak bulegotik atera. Eta, hala ere, hemen aurkitzen ditugu, Londresen bihotzean, funtzionario gazte baten poltsikoan. Ikuspuntu ofizial batetik, ikaragarria da."

"Baina berreskuratu dituzue?"

"Ez, Sherlock, ez! Horixe da koxka. Hamar paper hartu zituzten. Zazpi zeuden Cadogan Westen poltsikoan. Hiru garrantzitsuenak desagertu egin dira. Dena utzi behar duzu, Sherlock. Ahaztu poliziako zure ohiko puzzle txikiak. Nazioarteko arazo hil ala bizikoa da."

"Zergatik ez duzu zuk zeuk ebazten, Mycroft? Nik bezainbeste ikusten duzu zuk ere."

"Baliteke, Sherlock. Bama hara eta hona ibiltzea, trenbideko guardiak galdekatzea eta lurrera begira lupa batekin egotea... hori ez da nire ofizioa. Ez, zu zara auzi hau argitu dezakeen gizon bakarra."

Nire lagunak irribarre egin eta buruarekin ezetz esan zuen.

"Jokoan jokoagatik bakarrik jokatzen dut," esan zuen. "Baina arazoak baditu puntu interesgarri batzuk. Datu gehiago, mesedez."

"Garrantzitsuenak orri honetan apuntatu ditut. Paperen zaindaria Sir James Walter da. Bere abertzaletasuna susmo guztien gainetik dago. Bera da kutxa gotorraren giltza duten bi gizonetako bat."

"Nor zen giltza zuen beste gizona?"

"Sidney Johnson funtzionario nagusia. Gizon isila eta ozpindua da, baina langile fina."

"Tira, guztiz argi dago nork eraman zituen, orduan. Cadogan Westen gainean aurkitu dituzte. Hori behin betikoa dela dirudi, ezta?"

"Bala dirudi, Sherlock, eta hala ere gauza asko daude azaldu gabe. Lehenik eta behin, zergatik hartu zituen?"

"Balio handikoak zirela suposatzen dut?"

"Mila libera asko lortu litzake horiengatik erraz."

"Nola hil zen, orduan?"

"Pentsa dezagun Woolwichera bueltan bidaiatzen ari zela hil eta bagoitik bota zutenean."

Lestradek, aspertuta, erantzun zuen:

"Itxurakeria bat. Niri guztiz argi iruditzen zait. Paperak saltzeko hartu zituen. Trenean agenteak hil egin zuen eta gorpua bagoitik bota zuen."

"Zergatik ez zuen txartelik?"

"Txartelak erakutsiko luke zein geltoki zegoen gertuen agentearen etxetik. Horregatik kendu zion."

"Ondo, Lestrade, oso ondo," esan zuen Holmesek. "Zure teoriak zentzua du."

"Ekin, Sherlock, ekin!" oihu egin zuen Mycroftek. "Ez utzi harri bat bera ere mugitu gabe!"

"Tira, tira!" esan zuen Holmesek. "Goazen, Watson! Eta zu, Lestrade, gurekin etortzeko mesedea egingo zeniguke ordu bat edo bi?"

Ordu bat geroago, Aldgate geltokiko tunelaren irteeran geunden.

"Hantxe zegoen gaztearen gorpua," esan zuen trenbide-konpainiaren ordezkariak.

"Ez al dago ate irekirik aurkitu deneko berririk?"

"Baterik ere ez."

"Gaur goizean froga berriak izan ditugu," esan zuen Lestradek. "Bidaiari batek kolpe handi bat entzun zuela dio."

Holmes tentsio handiz zegoen trenbideko metalei begira.

"Orratzak," murmurikatu zuen; "orratzak."

"Zer dela eta? Zer esan nahi duzu?"

"Suposatzen dut horrelako sistema batean ez dela orratz-kopuru handiegirik egongo?"

"Ez; oso gutxi dira."

"Eta kurba bat, gainera. Orratzak eta kurba bat. Jainkoarren! Hala balitz bakarrik..."

"Zer gertatzen da, Holmes jauna? Lorratzen bat duzu?"

"Idea bat... zantzu bat, ez gehiago. Baina kasua interesgarriagoa egiten ari da zalantzarik gabe. Bakarra, guztiz bakarra, eta hala ere, zergatik ez? Ez dut odol zantzurik ikusten trenbidean."

"Ia ez zegoen."

"Baina ulertu dudanez, zauri handi bat zuen."

"Hezurra txikituta zegoen, baina ez zegoen kanpoko zauri handirik."

"Eta hala ere, odol pixka bat espero zitekeen. Posible litzateke niretzat laino artean erorketa baten kolpea entzun zuen bidaiaria zihoan trena aztertzea?"

"Beldur naiz ezetz, Holmes jauna. Trena desegin dute dagoeneko, eta bagoiak banatuta daude."

"Ziurtatu diezazuket, Holmes jauna," esan zuen Lestradek, "bagoi bakoitza arretaz aztertu dela. Neronek gainbegiratu nuen."

Nire lagunaren ahuleziarik nabarmenetako bat zen bera baino motelagoak ziren adimenekin pazientzia galtzea.

"Oso litekeena da," esan zuen, alborantz begiratu. "Kontua da ez zirela bagoiak nik aztertu nahi nituenak. Watson, hemen ahal genuen guztia egin dugu. Ez zaitugu gehiago gogaituko, Lestrade jauna. Nire ustez, gure ikerketek Woolwichera eraman behar gaituzte orain."

London Bridgen, Holmesek telegrama bat idatzi zion anaiari, eta niri eman zidan bidali aurretik. Honela zioen:

"Argi pixka bat ikusten dut iluntasunean, baina baliteke itzaltzea. Menturaz, bidali mezulari baten bidez Baker Streeterako itzuleran zain egon dadin Ingalaterran dauden espioi atzerritar edo agente internazional guztien zerrenda osoa, helbide eta guztu. — Sherlock."

"Hori lagungarria izango da, Watson," esan zuen Woolwicheko trenean eseri ginenean. "Zorretan gaude Mycroft anaiarekin, kasu benetan harrigarria izango dela agintzen duen honetan sartu gaituelako."

Haren aurpegi gogotsuak energia handiko espresio hura zuen oraindik; horrek erakusten zidan inguruabar berri eta iradokitzaile batek pentsamendu-lerro suspergarri bat ireki ziola. Ikusi belarriak zintzilik eta buztana apalduta dituen ehiza-txakurra txakurtegi nagia, eta konparatu begi dirdiratsu eta giharrak tentsioan dituen txakur berarekin arrasto fresko baten bila doanean... horrelakoa zen aldaketa Holmesengan goizetik hona. Beste gizon bat zen, ordu batzuk lehenago baino ez logela lainotuan gora eta beheara zebilen bata sator-koloreko gizon motel hura.

"Hemen badago materiala. Badago eremua," esan zuen. "Leloa naiz benetan honen aukerak lehenago ulertu ez ditudalako."

"Niretzat oraindik ilun daude."

"Bukaera iluna da niretzat ere, baina idea bati heldu diot eta urrutira eramanez gaitzake. Gizona beste nonbait hil zen, eta bere gorpua bagoiaren sabaian zegoen."

"Sabaian!"

"Harrigarria, ezta? Baina pentsatu datuetan. Kasualitatea al da trena makurtu eta orratzetatik igarotzean kulunka egiten duen puntu berean aurkitu izana? Ez al da hori sabaian dagoen objektu bat erortzea espero daitekeen tokia? Orratzek ez liokete eragingo tren barruko objektu bati. Edo gorpua sabaitik erori zen, edo kasualitate bitxiegi bat gertatu da. Baina orain pentsatu odolaren kontuan. Noski, ez zegoen odol-arrastorik trenbidean gorpua beste nonbait odolustu bazen. Datu bakoitza esanguratsua da berez. Denek batera indar metatua dute."

"Eta txartela ere bai!" oihu egin nuen nik.

"Hain zuzen. Ezin genuen txartelik ez egotea azaldu. Honek azalduko luke. Dena ondo egokitzen da."

"Baina hala balitz ere, misterioa argitzetik urrun gaude oraindik. Izan ere, ez da sinpleagoa egiten, bitxiagoa baizik."

"Agian," esan zuen Holmesek, pentsakor, "agian." Isiltasunean geratu zen trena Woolwicheko geltokian geratu zen arte. Han kabina bat deitu eta Mycroften papera atera zuen poltsikotik.

"Bisita batzuk egin behar ditugu arratsalde honetan," esan zuen. "Sir James Walterrek du gure lehen arreta."

Funtzionario ospetsuaren etxea villa eder bat zen, Tamesis ibairaino heltzen ziren belardi berdeekin. Iritsi ginenean lainoa altxatzen ari zen. Mayordomoak erantzun zion gure deiari.

"Sir James, jauna!" esan zuen aurpegi serioarekin. "Sir James gaur goizean hil da."

"Jainko maitea!" oihu egin zuen Holmesek harrিতuta. "Nola hil da?"

"Agian barrura sartu nahi duzue, jauna, bere anaia Valentine koronela ikustera?"

"Bai, hobeto egingo dugu hori."

Gela argi-ilun batera eraman gintuzten, eta handik gutxira gizon altu eta dotore bat elkartu zitzaigun, hildako zientzialariaren anaia gaztea. Haren begi basatiek eta ile nahasiak etxean izandako bat-bateko kolpeaz hitz egiten zuten.

"Eskandalu ikaragarri hau izan da," esan zuen. "Nire anaia, Sir James, ohore handiko gizona zen, eta ezin zuen horrelako kontu bat jasan. Bihotza hautsi zion. Beti zegoen oso harro bere sailaren eraginkortasunaz, eta hau kolpe suntsitzailea izan da."

"Guk espero genuen berak argibideren bat ematea auzia argitzeko."

"Ziurtatzen dizut misterio bat zela berarentzat, zuentzat eta guztiontzat den bezala. Bere ezagutza guztia poliziaren esku utzi zuen. Noski, ez zuen zalantzarik Cadogan West erruduna zela. Baina gainerako guztia pentsaezina zen."

"Ezin duzu argi berririk eman aferaren gainean?"

"Nik ez dakit ezer irakurri edo entzun dudana kanpo. Ez dut desadeko izan nahi, baina ulertu dezakezue, Holmes jauna, oso nahasita gaudela une honetan."

"Hau ustekabeko garapena da benetan," esan zuen nire lagunak berriro kabinan ginenean. "Galdetzen diot nire buruari heriotza naturala izan ote den, edo gizon koitaduak bere burua hil ote duen! Bigarrena balitz, utzitako betebherraren damu gisa har ote daiteke? Galdera hori gerorako utziko dugu. Orain Cadogan Westarren etxera joango gara."

Herriaren kanpoaldeko etxe txiki baina ondo zaindu batean bizi zen ama mindua. Andre zaharra larregi nahasita zegoen laguntzeko, baina bere ondoan neska gazte bat zegoen, Violet Westbury, hildakoaren emaztegaia eta gau hartan ikusi zuen azkena.

"Ezin dut azaldu, Holmes jauna," esan zuen. "Ez dut begirik bildu tragediatik, pentsatzen, pentsatzen eta pentsatzen, zer esan nahi duen honek guztiak. Arthur munduko gizon zintzo, zaldun eta abertzaleena zen. Eskua moztuko luke bere esku zegoen sekretu bat saldu aurretik. Zentzugabea eta ezinezkoa da hura ezagutzen zuen edonorentzat."

"Baina datuak, Westbury andrea?"

"Bai, bai; onartzen dut ezin ditudala azaldu."

"Diru beharrik bazuen?"

"Ez; bere beharrak oso sinpleak ziren eta soldata nahikoa. Ehunka libera batzuk aurreztuta zituen, eta Urte Berrian ezkontzekoak ginen."

"Urduritasun zantzurik? Tira, Westbury andrea, izan guztiz zintzoa gurekin."

Nire kidearen begi erneak aldaketa bat sumatu zuen neskaren jarreran. Gorritu egin zen eta zalantza egin zuen.

"Bai," esan zuen azkenean, "zerbait buruan zuela sentitzen nuen."

"Duela askotik?"

"Azken astean edo. Pentsakor eta kezkatu zegoen. Behin galdetu nion. Onartu zuen zerbait zegoela, eta bere lanarekin lotuta zegoela. 'Serioegia da niretzat hitz egiteko, baita zurekin ere,' esan zuen."

Holmes serio jarri zen.

"Jarraitu, Westbury andrea. Nahiz eta haren aurka doala iruditu, jarraitu."

"Benetan, ez dut gehiago kontatzeko. Behin edo bitan iruditu zitzaidan zerbait kontatzear zegoela. Arratsalde batean sekretuaren garrantziaz hitz egin zuen, eta gogoratzen dut esan zuela espioi atzerritarrek ziur aski asko ordainduko luketela hori izateagatik."

Nire lagunaren aurpegia are serioago jarri zen.

"Beste zerbait?"

"Esan zuen halako kontuetan axolagabeak ginela... erraza izango litzatekeela traidore batentzat planoak lortzea."

"Duela gutxi egin zituen horrelako iruzkinak?"

"Bai, duela oso gutxi."

"Orain kontatu azken arratsalde hartakoa."

"Antzerkira joatekoak ginen. Lainoa hain zen lodia non kabina bat deitzea alferrik baitzen. Oinez joan ginen, eta bideak bulegotik gertu eraman gintuen. Bat-batean, laino artean korrika ihes egin zuen."

"Hitzik gabe?"

"Oihualdi bat egin zuen; hori izan zen dena. Itxaron egin nion baina ez zen itzuli. Orduan etxera joan nintzen. Hurrengo goizean, bulegoa ireki ondoren, galdezka etorri ziren. Hamabiak aldera albiste beldurgarria jaso genuen. Oh, Holmes jauna, haren ohorea salbatuko bazenu! Hainbeste zen berarentzat."

Holmesek buruarekin ezetz egin zuen triste.

"Goazen, Watson," esan zuen, "gure bideak beste nonbaitetik doaz. Hurrengo geltokia paperak hartu zituzten bulegoa izan behar da."

"Lehen beltz zegoen gizon gazte honen aurka, baina gure ikerketek are beltzago jartzen dute," esan zuen kabinak martxa hartu zuenean. "Bere ezkontzak krimenerako arrazoi bat ematen du. Dirua nahi zuen, noski. Ideia buruan zuen, horri buruz hitz egin baitzuen. Neska traizioaren konplize bihurtzear egon zen bere asmoak kontatzean. Oso txarra da dena."

"Bama ziur aski, Holmes, izaerak balio du zerbait? Eta zergatik utziko luke neska kalean delitu bat egitera joateko?"

"Hain zuzen! Badira eragozpenak. Baina aurre egin beharreko kasu gogorra da."

Sidney Johnson jauna, funtzionario nagusia, bulegoan elkartu zen gurekin. Gizon argala, purrustaria eta betaurrekoduna zen, aurpegia nahasia eta eskuak dardar batean zituena jasan zuen tentsioagatik.

"Txarra da, Holmes jauna, oso txarra! Entzun al duzu nagusiaren heriotzaren berri?"

"Haren etxetik gatoz oraintxe."

"Lekua desantolatuta dago. Nagusia hilda, Cadogan West hilda, gure paperak lapurtuta. Eta hala ere, astelehen arratsaldean atea itxi genuenean, gobernu osoko bulegorik eraginkorrena ginen. Jainkoa, beldurgarria da pentsatzea! Westek, gizon guztien artean, horrelako zerbait egin izana!"

"Ziur zaude haren erruduntasunaz, orduan?"

"Ez dut beste irteerarik ikusten. Eta hala ere, nire buruaz fidatzen naizen bezala fidatuko nintzatekeen beraz."

"Zein ordutan itxi zen bulegoa astelehenean?"

"Bostetan."

"Zuk itxi al zenuen?"

"Ni naiz beti irteten den azkena."

"Non zeuden planoak?"

"Kutxa gotor horretan. Neronek jarri nituen han."

"Ez al dago zaintzailerik eraikinean?"

"Bada, baina beste sail batzuk ere zaindu behar ditu. Soldadu zaharra da eta gizon konfiantzazkoa. Ez zuen ezer ikusi arratsalde hartan. Noski, lainoa oso lodia zen."

"Pentsa dezagun Cadogan Westek bulegoan sartu nahi zuela lanorduetatik kanpo; hiru giltza beharko lituzke, ezta, paperetara iritsi aurretik?"

"Bai, hala litzateke. Kanpoko ateko giltza, bulegokoa eta kutxa gotorrekoa."

"Sir James Walterrek eta zuk bakarrik zenituzten giltza horiek?"

"Nik ez nuen ateen giltzarik... kutxa gotorrekoa bakarrik."

"Sir James gizon ordenatua al zen?"

"Bai, uste dut bazela. Badakit hiru giltza horiei dagokienez eraztun berean zeramatzala. Sarritan ikusi ditut han."

"Eta eraztun hori berarekin joan zen Londresera?"

"Hala esan zuen."

"Eta zure giltza ez da inoiz zure eskuetatik atera?"

"Inoiz ez."

"Orduan Westek, bera bada erruduna, duplikatu bat izan behar zuen. Eta hala ere, ez zen bat bera ere aurkitu bere gorpuaren gainean. Beste puntu bat: bulego honetako funtzionario batek planoak saldu nahi balitu, ez litzateke errazagoa izango planoak beretzat kopiazea originalak hartzea baino, egin zen bezala?"

"Ezagutza tekniko handia beharko litzateke planoak modu eraginkorrean kopiazeko."

"Baina suposatzen dut Sir Jamesek, edo zuk, edo Westek baduzuela ezagutza tekniko hori?"

"Zalantzarik gabe genuen, baina otoi, ez nazazu tarte honetan sartu, Holmes jauna. Zertarako balio du horrela espekulatzek jatorrizko planoak Westen gainean aurkitu zirenean?"

"Tira, bitxia da benetan originalak hartzeko arriskua izatea kopia seguruagoak egin bazitzakeen, bere helbururako berdin balio ziotenak."

"Bitxia, zalantzarik gabe; eta hala ere, hala egin zuen."

"Kasu honetako ikerketa bakoitzak zerbait azalezin agertzen du. Orain hiru paper falta dira oraindik. Horiek dira, ulertzen dudanez, funtsezkoak."

"Bai, hala da."

"Esan nahi duzu hiru paper horiek dituen edonork, beste zazpiak gabe, Bruce-Partington itsaspeko bat eraiki lezakeela?"

"Hala jakinarazi nion Almirantegoari. Baina gaur marrazkiak berriro aztertu ditut, eta ez nago hain ziur. Zirrikitu automatikoak dituzten balbula bikoitzak itzuli diren paperetako batean marraztuta daude. Atzerritarrek hori asmatu arte ezin izango lukete ontzia egin. Noski, laster gaindi lezakete oztopoa."

"Baina falta diren hiru marrazkiak garrantzitsuenak dira?"

"Zalantzarik gabe."

"Uste dut, zure baimenarekin, buelta bat emango dudala instalazioetan. Ez dut gogoratzen egin nahi nuen beste galderarik."

